

# Jardueren Memoria

2000

C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico  
y Social Vasco

# Jardueren Memoria

2000

C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Araoetarako Batzordea

Consejo Económico  
y Social Vasco



## Aurkezpena

*Atsegin osoz aurkezten dut E.E.G.A.B.k 2000ko ekitaldian egin dituen Jardueren Memoria; memoria aldian horretan, hau da, Erakundearentzat trantsizio, inflexio eta sendoketa garaia izan den horretan, garatu ditugun egintzak biltzen dira.*

*Esan dut trantsizio aldia izan dela, urtearen erdialdean kideak eta karguak ordeztu zirelako, 1999ko udazkenean hasi genuen berrikuntza prozesuari amaiera emanez.*

*Aldi berean, lekualdaketaren urtea izan da, egoitza berria inauguratu dugulako. Lokal berriak oso modernoak, zabalak, erosoak dira, hots, oso egokiak E.E.G.A.B.k egun duen jarduerari ekiteko.*

*Halaber, sasoi horretan Korporazioaren Irudia aldatu dugu, azken finean harremanetarako giroa hobetzeko eta jarduera maila nabarmen areagotuz.*

*Memoria honen egiturari dagokionez azpimarratu nahi nuke aurreko ekitaldian ezarri genuen ildoak zainduz egin dela eta sei kapitulu eta hiru eranskinetan taxutu dugula; berrikuntza kide eta karguen ordezenari buruzko kapitulua da.*

*Bada, sarrera labur hau bukatu aurretik, 2000 urtean etapa berri hori bukatzeak eragin didan poztasuna adierazi nahi nuke, etapa horretan gure erakunde hau sendotu egin delako, azpiegitura nahikoak eta ondo zuzkituak lortu dituelako eta elkarriketa egokiagoa eta sendoagoa garatzeko balio izan digulako. Argi dago E.E.G.A.B. prest daukagula aurrera egiteko. Hala bedi, benetan.*

**RAFAEL PUNTONET DEL RÍO**

**Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Lehendakaria**



## Ziurtagiria

*Nik, Manuel Aranburu Olaetxeak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen idazkari nagusiak, ondokoa*

### ZIURTATU DUT:

*Lehena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2000ko martxoaren 30.(e)(a)n egindako bilkura arruntean, besteak beste honako erabaki hau hartu du:*

*"Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jardueren Memoria aho batez onestea 2000ko"*

*Bigarren, argitalpen honek erabaki horretan aipaturiko Batzordearen Osoko Bilkurak onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik jasotzen dutela.*

*Eta, ondoren egokiak izateko, hau sinatzen dut Bilbon 2000ko apirilaren 2.a.*

**MANUEL ARANBURU OLAETXEA**

***Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Idazkari Nagusia***



# Aurkibidea

<b>I. KAPITULUA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA .....</b>	<b>9</b>
<b>II. KAPITULUA.–BATZORDEAREN LEGEAN EZARRITA DAUDEN FUNTZIOEN EKITALDIA .....</b>	<b>12</b>
• Batzordearen kontsultara jarritako eta irizpena emandako arazoak .....	13
• EAEko Memoria sozio-ekonomikoari buruzko txostena lantzea .....	14
<b>III. KAPITULUA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDE BERRIA ERATZEA ETA BERTAKO KIDEAK NAHIZ KARGUAK BERRITZEA .....</b>	<b>16</b>
<b>IV. KAPITULUA.–ERAKUNDE ARTEKO HARREMANAK ETA JARDUERAK</b>	<b>18</b>
• Erakunde arteko harremanak eta jarduerak .....	19
• Batzordearen egoitza berria inauguratzeko eta ordura arteko kideei nahiz karguei eskerrak emateko ekintza .....	24
<b>V. KAPITULUA.–BALIABIDE MATERIALEN KUDEAKETA .....</b>	<b>26</b>
• Aurrekontua 2000 .....	27
– Erakundearen egoitza berria egokitzeko eta gaitzeko obrak	29
– Erakunde nortasunaren irudi berria .....	30
– Interneteko Web orria: <a href="http://www.cesvasco.es">www.cesvasco.es</a> .....	31
– Dokumentazio zerbitzua .....	31
– Liburutegia .....	32
– Argitalpenak .....	33
<b>VI. KAPITULUA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI EZARRI DA KIOKEEN LEGEDIA .....</b>	<b>34</b>



## Eranskinak

<b>I. ERANSKINA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO ORGANOEN ETA BATZORDEEN OSAKETA .....</b>	<b>38</b>
<b>II. ERANSKINA.–EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO ORGANOEK ETA BATZORDEEK EGINDAKO BILKURAK .....</b>	<b>47</b>
<b>III. ERANSKINA.–AUDITORETZA TXOSTENA .....</b>	<b>55</b>

# I

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

## Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Batzordeari buruzkoa, EHAA, 141. zk., 1997ko uztailaren 24koa, Eusko Jaurlaritzako eta Eusko Legebiltzarreko izaki aholku-emaile bezala sortu zen, Euskal Herriko ekonomia politikoan interes ekonomiko eta sozial ezberdinen partehartzea eraginkorra izan dadin.

Era honetan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, berezko nortasun juridikoarekin, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ezberdina, bere betebeharrak betetzeko ahalmen osoarekin, Jaurlaritza eta Legebiltzarraren independentziarekin, Lehendakariak izendaturiko eta lau multzotan banaturiko 32 partaidez osatzen da:

- **a) taldea:** hemengo partaideak erakunde eta konfederazio sindikalek izendatzen dituzte.
- **b) taldea:** hemengo partaideak Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko enpresa erakundeek izendatzen dituzte, enpresarien erakunde ordezkariak dutenek.
- **c) taldea:** hemengo partaideak ondoko Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate edo elkarteek izendatzen dituzte: merkataritza, industria eta nabigazio ganbarek; aurrezki-kutxek eta finantza erakundeek; kooperatibek; akziokako lan-baltzuek; arrantzako elkargoek; nekazaritzako elkargoek; kontsumitzaileen elkargoek eta Euskal Herriko Unibertsitateak.
- **d) taldea:** hemengo partaideak esperientzia eta independentzia, eta gaitasun ezagunen pertsonak izendatuak dira, batzordeko sortze-Legearen diogenarekin ados egonik.

Honela izendatutako Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko partaideek, dagokien eginkizunetan autonomia eta independentzia osoz jokatzen dute, lau urteko aldirako hautatuak izanik, bere berrautzeari uko egin gabe.

Batzordearen funtzioen garapen egokia izateko, organo batzuk sortzen dira, elkargoko kide direnak (Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta Lan-Batzordeak), zein pertsona bakarrekoak (Lehendakaria, Lehendakari-ordea eta Idazkari Nagusia). Osoko Bilkura batzordearen borondateko erabakien eta formazioaren organo gorena da, eta batzordeko partaide guztiek osatzen dute.

Batzordearen funtzionamendua ekainaren 27ko 9/1997 Legea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa, Batzordeko Funtzionamenduaren Araubideak eraentzen du. Hau Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 1997ko abenduaren 18an, EHAA, 10. zk., 1998ko urtarrilaren 16an, eta batzordeak berak bere garapenerako eman dituen arauak eta erakundeak onetsia dago.

Bide honetan eta arautegian bildutakoari jarraituz, ekonomia eta gizarte politikarekin harremana duten gaiak buruzko txostenen, erabakien eta irizpenen jaulkipena –Gobernuak edo Eusko Jaurlaritzak eskaturik, edo berezko ekimenez– Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari dagokio. Halaber, batzordeak Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari urtero Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia eta gizarte egoerari buruzko iritziak adierazten dituen memoria aurkeztuko dio.

Batzordearen Legean ezarrita dauden funtzioen ekitaldia

II

## Batzordearen Legean ezarrita dauden funtzioen ekitaldia

Indarreko Legean esaten duenarekin bat egonik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2000. urtean zehar bere kontsultara jarritako arazoei buruzko zazpi irizpen eman ditu. Halaber, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Jaurlaritzari, EAEko ekonomia eta gizarte egoeraren gaineko iritziak azaltzen dituen urteroko memoria igorria dio.

### BATZORDEAREN KONTSULTARA JARRITAKO ETA IRIZPENA EMANDAKO ARAZOAK

2000. urtean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak honako irizpen hauek eman ditu:

- 1/2000 IRIZPENA, Euskadiko Errepide Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legea aldatzen duen Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
- 2/2000 IRIZPENA, Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko AUZOLAN Programa arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- 3/2000 IRIZPENA, Euskadiko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Lege Aurreproiektuari buruzkoa.
- 4/2000 IRIZPENA, Euskadi 2000-2006. 2. Helburuaren Programaziorako Agiri Bakarrari buruzkoa.
- 5/2000 IRIZPENA, Haur eta Gazteen eskubideak eta erantzukizunak bermatzeko laguntza eta babes emateko.
- 6/2000 IRIZPENA, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuaren Aginduaren Proiektuari buruzkoa; horren bidez, Kooperatiba-Sozietateetan lanpostuak sortzen laguntzeko neurriak arautzen dira.
- 7/2000 IRIZPENA, Junior – Enpresa Programa arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa.

## EAEko MEMORIA SOZIO-EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENA LANTZEA

Erakunde honek egiten duen Euskadiko Autonomia Erkidegoaren hirugarren memoria sozio-ekonomikoa Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurak onetsi zuen 2000ko urriaren 27an egindako ohiko bilkuran. Era honetan, organo honek, beste eginkizunen artean, urteroko memoria bat egin eta Jaurlearitzari eta Legebiltzarrari emateko legezko manua betetzen da.

Memoria honetan, urte horretako abenduan argitaratua 1999. urteko *Euskadiko Autonomia Erkidegoaren egoera sozio-ekonomikoa-Urteroko Memoria* izenburuarekin, lan deskribatzaile garrantzitsua egiten da, urteko ekonomia eta gizarte gertaera nabarmenak laburbilduz, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan dagoen egoerari buruzko gizarte eta ekonomia agente nagusiek elkar banatutako ikuspegia eskainiz. Memorian EGABk ordezkatzan dituen talde eta erakunde ezberdinek ados jarritako eta kapitulu deskribatzaileak aurretik aurkeztutako ondorioak, iritziak eta proposamenak azaltzen dira.

Aipagarria da Lan Batzordeak Memoria lantzeko egin duen lan gogorra, agorturiko epeekin; hori ezinezkoa izango zen, Batzorde honetako kide guztien artean lorturiko elkarriketa eta adostasun giro onik egon ezean, eta hori gerora onetsi zuen Osoko Bilkurara heda daiteke, horrek talde guztien erabateko adostasuna jasotzen duen testua lantzeko aukera eman baitu.

Aurreko edizioan bezala, 1999ko Memoria Sozio-ekonomiko hau oinarrizko lau zatitan egituratu da, Laburpenaren eta Ohar Orokorren atalaz gain, eta horietan berritasun batzuk daude.

Lehen zatian 1999. urtean zehar EAE ekonomia eta lan egoeran nola moldatu den azaltzen da, Teknologia, Ikerketa eta Kalitate edo oinarrizko Azpiegituraren idazki-zatiak gehituz.

Bigarren zatia biztanleriaren bizi-baldintzak eta bere ongizatearen mailari buruz ari da. Osasun, heziketa (eskola porrota), etxebizitza, ingurugiroa, kultura eta kontsumo egoeren ezaguerarekin batera, Emakumearen arazoak eta egoera soziolin- guistikoa EAEn eta euskararen egoera ere aztertzen dira. Atal honetan beste kapitulu bat sartu da, atzerriko inmigrazioari buruzkoa, eta bertan arazo hori sakon aztertzeko ahalegina egin da.

Hirugarren zatian gizarte-babesaren egoera, gizarteko ezberdintasun edo baztertze egoerak eta sortutako gastua ikertzen dira.

Azkenik, laugarren zati bat sartzan da UErekin dauden harremanak, egitura-politika eta erkidego kohesioa deskribatuz.

Aurreko memoriaren antzera, idazki-zati hauek urte horretan zehar Eusko Legebiltzarraren lege-jarduera zerrendatu egiten duen eranskin batekin betetzen dira.

Irakurleak, Memoria Sozio-ekonomiko honetan, batetik, datuak aurkituko ditu, Euskadiko errealitate sozio-ekonomikoaren argazkiak bailiran; bestetik, erabakia-  
ren puntu komunak ere aurkituko ditu, hausnarketa bateratuaren ondoriozkoak,  
eta horiek Erkidegoko agente nahiz erakundeek lortu dituzte, gizarteko arazo  
nagusiei buruz.



Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Araoetarako Batzorde  
berria eratzea eta bertako kideak nahiz karguak berritzea

III

## Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde berria eratzea eta bertako kideak nahiz karguak berritzea

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde berriak 2000ko maiatzaren 31ko Osoko Bilkura eginez hasi du bere ibilbidea; bertan, Aditu taldeko kideek euren karguak hartu, Erakundeko Lehendakaria aukeratu eta Idazkari Nagusia izendatu da. Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak, dekretu baten bidez, Batzordeko Lehendakaria izendatu du 2000-06-21ean.

Batzordeko kideen agintea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ekainaren 27an emandako 9/1997 Legeak ezarritakoaren eta Batzordeko Funtzionamenduari buruzko Araudiaren arabera, 1999ko azken hiruhilekoan amaitu behar zen; hala eta guztiz ere, urte horretako urrian erakundea berritzeko lehenengo pausoak eman ziren, prozesua luzatu egin zen eta, 2000ko erdialdean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde berria eratu zen.

Halako erakunde batek ezaugarri jakinak dituela (berorren barruan, errealitate sozio-ekonomikoaren eremuan diharduten agenteak eta erakundeak sartzen dira) eta Batzordearen lehenengo berrikuntza esperientzia zela kontuan hartuz, errazago uler daiteke lehenengo berrikuntza prozesu horretarako behar izan den denbora luzea.

a), b) eta c) taldeetako kideak otsailaren 25eko 2/2000 Dekretuak izendatu ditu (2000-03-23ko 58. zenbakidun EHAA n argitaraturiko Dekretua) eta EGAB berritzeko aurretiazko Bilkuran hartu zituzten euren karguak, 2000ko apirilaren 12an.

Aurretiazko bilkura horretan d) taldeko kide adituak izendatu zituzten; hain zuzen ere, apirilaren 19ko 4/2000 Dekretuaren bidez izendatu ziren (2000-05-10ko 87. zenbakidun EHAA), eta Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde berriaren lehenengo bilkuran hartu zituzten euren karguak, 2000ko apirilaren 31n.

Batzordeko Lehendakaria, bestalde, Batzorde Berriak 2000ko maiatzaren 31n egindako lehenengo Bilkuraren Erabakiz izendatu zuten, eta ekainaren 14ko 6/2000 Dekretuak izendatu zuen (2000-06-21ko 117. zenbakidun EHAA).

Batzordeko Idazkari Nagusia, azkenik, Batzordeak 2000ko maiatzaren 31n egindako Bilkuran hartutako erabakiaren bidez izendatu zuten.

Erakunde arteko harremanak eta jarduerak

# IV

## Erakunde arteko harremanak eta jarduerak

### ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK ETA JARDUERAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak jarduera bizia izan du erakundeetan; 2000. urtean erakundeko karguak berritzeak, gainera, areagotu egin du jarduera hori.

Lehengo karguei agur esateko bisitaldi ofizialekin batera, Lehendakari eta Idazkari Nagusi berriak aurkeztu ziren, 2000ko uztailaren 10ean, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren aurrean, Idoia Zenarruzabeitia Lehendakariordearen aurrean (2000ko uztailaren 21ean) eta Eusko Jaurlaritzako Sailburuen aurrean (urte horretako hirugarren hiruhilekoan). Aipagarria da Eusko Jaurlaritzako ordezkariak erakunde honen bilakaerari eta ibilbideari buruz izan duten interes handia, baita Batzordearekin harreman estua eta bizkorra finkatzearen alde agertu duten jarrera ere.

Eusko Legebiltzarrekiko harremanei dagokienez, beste alde batetik, esan behar da maiatzaren 12an lehengo Lehendakaria eta Idazkari Nagusia Lan eta Gizarte Ekintza Sailean egon zirela, euren jarduerak eta kudeaketa azaltzeko. Hala ere, nabarmentzeko modukoa da Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria den Juan M<sup>a</sup> Atutxa jaunarekin 2000ko uztailaren 10ean egindako bilera, kargu berriak aurkezteko helburuarekin. Gainera, Legebiltzarreko Lehendakaria EGABren egoitza berriaren inaugurazioan egon zen, mahaiburutzat. Jardunaldi horretan Euskadiko lehengo EGABko kideen eta karguen lanari omenaldia egin zitzaion. Egintza horretan, Legebiltzarreko Lehendakariak Euskadiko EGABren lanari ematen zaion garrantzia nabarmendu zuen, bertako erakundeen eta agenteen arteko bilketa eta eztabaida gunetzat ematen zaiona, hain zuzen ere; era berean, Batzordearen funtzioak ere azpimarratu zituen, errealitate sozio-ekonomikoaren aldaketa azkarra kontuan hartuz.

Aipagarria da, bestalde, EGABko Lehendakariak, Lanaren Nazioarteko Erakundeak berriaz gonbidatuta, LNEko Heziketaren Nazioarteko Zentrora egindako bisitaldia, Turinera (2000ko azaroaren 16an eta 17an), nazioarteko erakunde horrek lan eta gizarte errealitateko eremu guztietan egiten dituen heziketa programak eza-gutzeko.



Beste alde batetik, Batzordean ordezkaturik dauden erakundeen eta organizazioen arteko harremanak areagotu egin dira. Karguak taldeok urtean zehar egindako biltzar, jardunaldi edo egintza askotara joan dira, eta horien artean honako hauek aipa daitezke: ASLEk apirilean egindako XVIII. Biltzar Nagusia; Euskadiko CC.OOK ekainean egindako VI. Biltzar Konfederala; Kooperatibismoaren Mundu Eguna, azaroan; ELAk abenduan egindako X. Biltzarra; ASLEren kudeaketa Kalitateari abenduan emandako zilarrezko Q. Halaber, Batzordeko Lehendakariak komunikazio zuzena eta sakona izan du bertako kide guztiekin.

Erakunde arteko harremanen jarduera ez da inondik inora ere orain arte aipaturiko eremuetara mugatzen; Batzordeko karguak beste egintza batzuetara ere joan dira, errealitate sozio-ekonomikoa eratzen duten erakundeek, enpresek, organizazioek eta elkarteek gonbidatuta. Karguak eta talde teknikoak, gure lurraldetik kanpo, Ekonomia eta Gizarte Arazoetako beste Batzorde batzuek egindako koordinazio bileretara joan dira.

Halaber, talde teknikoak (urtean zehar) jardunaldietan, mintegietan, ikastaroe-tan eta foroetan parte hartu du, horiek interesgarriak baitira erakundearen jardue-ra garatzeko.









## BATZORDEAREN EGOITZA BERRIA INAUGURATZEKO ETA ORDURA ARTEKO KIDEEI NAHIZ KARGUEI ESKERRAK EMATEKO EKINTZA

2000ko abenduaren 14an, Euskadiko EGABren instalazio berriak inauguratu ziren, Bilboko Gran Vía kaleko 35. zenbakian. EGABko karguek bilkura arrunta egin zuten Bilkura aretoan, inaugurazio ofiziala egin baino lehen.

Ekintzak honako hauen babesak izan zuen, bertan egon baitziren: Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria den Juan M<sup>a</sup> Atutxa Mendiola jauna; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburua den Sabin Intxaurre Mendibil jauna; Ingurumen Sailburua den Esther Larrañaga Galdos andrea; Kultura Saileko Zuzendaria den Edurne Basoa andrea; Eusko Alkartasunako Legebiltzarkidea eta Eusko Jaurlaritzako lan eta Gizarte Ekintza Batzordeko Lehendakaria den Nekane Alzelai Uliondo andrea; eta Euskadiko Sozialisten Taldeko Legebiltzarkidea den Teresa Rodríguez Barahona andrea.

Halaber, ondoren zerrendaturik agertzen direnak ere bertan izan ziren: Alberto Esteban Romero eta Gonzalo Sarmiento López jaunak, Lan Harremanetarako Batzordearen Lehendakaria eta Idazkari Nagusia, hurrenez hurren; Enrique Marco-Gardoqui, SPRIren ordezkari; eta José Luis García Bengoa eta Luis M<sup>a</sup> Ulibarri jaunak, HOBETUZen ordezkari. Gainera, Batzordea osatzen duten erakunde ordezkaritza zabala eta kualifikatua ere egon zen; aipagarriak dira: Josu Onaindi jauna, CC.OOen Idazkari Nagusia; Carlos Trevilla jauna, UGTko Idazkari Nagusia; Román Knörr eta José G. Zubia jaunak, CONFEBASKEko Lehendakaria eta Idazkari nagusiak; Maite Aristegi andrea, EHNEko Idazkari Nagusia; Juan Luis Laskurain eta Felix Iraola jaunak, Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbaren ordezkariak. Egintzan Euskadiko lehengo EGABko ordezkariak ere egon ziren, baita Lehendakari nahiz Idazkari Nagusi ohiak ere, Javier Mongelos Oquiñena eta Fco. Javier Hernández Bilbao jaunak.

Juan M<sup>a</sup> Atutxa Mendiola jaunak (Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria), Sabin Intxaurre Mendibil jaunak (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburua) eta Rafael Puntonet del Río jaunak (Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako oraingo Lehendakaria) hitz batzuk esan zizkieten bertaratuei. Erakundeari esleituriko funtzioen garrantzia nabarmendu zuten, ekonomi eta gizarte politikaren eremuan diseinaturiko politika publikoen hobekuntzari dagokionez; era berean, honexetarako gogoia adierazi zuten, komenigarria delakoan: halako foro baten kultura eta metodologia (desberdinak eta, sarritan, elkarren aurkakak diren sentsibilitateak bateratu nahi ditu) gure arazo nagusi guztietaraino hedatzea.

Lehendakaritzak lehengo Batzordeak egindako lana nabarmendu zuen; berak esandakoaren arabera, Batzordea gaur egun erakunde mailako errealitatea da, lehen beste kargu eta kide batzuek Euskadiko EGAB abian jartzeko egindako esfortzuari esker. Halaber, Lehendakaritzaren ustez, une egokia zen oraingo

kideek eta karguek eskerrak emateko, lehengo Batzordeko kide eta karguei (baita lehengo aldian hil ziren kideak gogoratzeko ere –Juan Olaskoaga eta Alberto Abad jaunak–; horretarako, agintariek eta oraingo karguek plaka bana eman zieten.



Baliabide materialen kudeaketa

V

## Baliabide materialen kudeaketa

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, bere xedeak bete-tzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Nagusietan horretarako ida-tziz jasotzen duten baliabide ekonomikoak ditu, eta 2000. urtean zehar beharrezko zerbitzu administratibo eta teknikoez hornitu egin da, baliabide horiek egoki ku-deatzeko.

### AURREKONTUA 2000

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Gastuen Aurrekontuak 2000. urterako 250 milioi pezetako diru-kopurua zuen, oso-osoan EAEko Aurrekontu Nagusiaren kargura finantzaturik.

Jarraian 2000. urteko Aurrekontua nola geratu zen aurkezten da. Bertan %78,60 inguruko betearazpen maila nabarmendu behar da, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ohiko jarduera gero eta gehiago finkatu eta garatzearen ondorioz.

2000. urterako Aurrekontua hurrengo kapitulu handitan banatzen da:

	AURREKONTUA	GAUZATUA	GRADUA
<b>GASTUAK 2000</b>	<b>250.000.000</b>	<b>196.505.388</b>	<b>%78,60</b>
I. kapitulua–Langile gastuak	86.200.000	64.877.009	
II. kapitulua–Funtzionamendu gastuak	114.500.000	75.842.661	
III. kapitulua–Finantza gastuak	100.000	0	
IV. kapitulua–Gastu Arrunten Transf. eta Sub. Partaideei egindako transferentziak	43.200.000	32.435.136	
VI. kapitulua–Inbertsioak	6.000.000	23.350.582	
<b>SARRERAK 2000</b>	<b>250.000.000</b>	<b>134.564.275</b>	<b>%53,83</b>
Eusko Jaurlaritza	250.000.000	125.000.000	
Finantza sarrerak	0	6.182.299	
Beste sarrera batzuk	0	3.381.975	



Beste alde batetik, eta 1999an erabakitakoarekin bat etorriz, 2000. urtean Erakundeko egoitza berria egokitzeko eta gaitzeko obrak egin dira, eta horien zenbatekoa 80 milioi pezetakoa izan da. Zenbateko hori finantzatzeko, aurrekontu arruntetik kanpo, Eusko Jaurlaritzak 1999an berariaz emandako partida bat erabili da.

## ERAKUNDEAREN EGOITZA BERRIA EGOKITZEKO ETA GAITZEKO OBRAK

Batzordea egoitza berrira eraman zen 2000. urteko hasieran. Hasieran, egoitza berrien egokitzapen azkarra, azalekoa eta beharrezkoa egin zen, funtzioen eguneroko jarduera arrunta bermatzeko.

Gero, beharrezko gaikuntza ikerketa egin ziren, egoitza berria egokitzeko obrak egin ahal izateko. Proiektua onetsi eta adjudikatu ondoren, hautapen prozesu ego-kia buruturikoan, lehenengo fasean administrazio egoitzak gaitu ziren, udako oporretan; gero, Bilkuren aretoko eta ondoko lokaletako obrak egin ziren.

Egoitza berria behar bezala erabiltzeko gaiturik gelditu zen, 2000ko abenduaren erdialdean, hau da, epe nahiko laburrean, lanaren handitasuna kontuan hartuz, emandako aurrekontuaren zenbatekoa (goian adierazitakoa) horren adierazle garbia baita.

Obrak 2000ko abenduaren 14an amaitu ondoren, egoitza modernoak, funtzionalak eta erosoak inauguratu ziren; horiek ondo bete zituzten erakundearen beharrianak eta bertako funtzioen nahiz zerbitzuen garapena.

## ERAKUNDE NORTASUNAREN IRUDI BERRIA

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak agintaldi berriaren hasieran egin duen lehenengo gauzatarikoa erakundearen korporazio irudi berria aukeratzeari, onestea eta martxan jartzea izan da, irudi hori, berriz, instalazio berrien inaugurazioan aurkeztu zen. Erakunde nortasunaren irudi modernoa eta dinamikoa da, eta egokitu egiten da garai berrietara, Informazioaren Gizartearen eta Teknologia Berrien garaira, hain zuzen ere. Sortu dugun logotipoa gurekin etorriko da eta identifikatu egingo gaitu, datozen urteotan. Korporazio Nortasuneko Eskuliburua dugu, lehenengo aldiz, eta horrek Batzordeko jakinarazpenen eta argitalpenen jarraibidea ezartzen du.

Horren helburua, beste alde batetik, marka ezagutzeari eta horren nahiz erakundearen arteko identifikazio maila handia lortzea da. Horretarako, nortasun ezagutgarri berria gure produktu guztietan jarri dugu, hasi paperetatik eta aldian behingo argitalpenetara zein jakinarazpenetara (Egoera Sozio-ekonomikoari buruzko Memoria, Irizpenak, Jardueren Memoria eta Prentsako Jakinarazpenak).



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako BatzordeaConsejo Económico  
y Social Vasco

## INTERNETEKO WEB ORRIA: [www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Interneteko Web Orria edukitzearen garrantziaz jabetuta (Euskadiko EGABren argitalpen eta lan guztiak banatzeko sistema tradizionala osatzeko), urtearen hasieran plataforma informatiko hau ikertzen eta egiten hasi ginen. Web orri hau baliozkoa izango da EGABren jarduera guztien berri emateko eta erakundeari buruz dagoen informazioa biltzeko.

Hasieran teknologia berrien egokitzapentzat hartu zena gaur egun proiektu handia da. Itsu eta gor taldeen baldintzei egokituriko Web Orri bakarra egin dugu.

Orrialdean azkar sar daiteke eta, bertan, informazio zehatza ageri da, gure jarduerari eta gure irizpenei, memoriei, prentsa oharrei eta abarri buruz. Gainera, atal oso interesgarri eta erabilgarriak ere badaude, bai Batzordeko kideentzat, bai Komunikabideentzat edo bai halako gaietan interesa duen edozein pertsonarentzat. Orrialdearen barruan hauxe aurkituko dugu:

- “EGAB autonomikoen” datu-base komunerako lotura; bertan, beste erkidego batzuetako EGABen argitalpen guztiak daude.
- EGABren jardueren agenda (topaketak, bilerak, jardunaldiak...).
- Doako sarbidea EGABren agiritara, eta prentsan, irratan eta telebistan argitaraturiko albisteen (gizarteari eta lanari buruzko albistek) datu baseetara.
- Gainera, Europako EGABrekiko lotura zuzenak ditu, baita autonomietako beste EGAB batzuen web orriak ere.

## DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

Batzordean legegintza eta sozio-ekonomia mailako agiriak bilatzen dira; horiek oso lagungarriak dira halakoak behar dituzten Zerbitzu Teknikoentzat, Lan Batzordeentzat eta Batzordeko kideentzat.

Halaber, egunero, bi txosten banatzen dira, bat prentsakoa (paperean) eta bestea irrati nahiz telebistakoa (posta elektronikoaren bidez); horietan, eskualde nahiz nazio mailako informazio ekonomiko eta sozial nagusiak aurki daitezke. Agiriok Batzordeko zerbitzu teknikoaren esku daude, baita berori osatzen duten erakundeen eta kideen esku ere.

Eguneroko informazioko zerbitzu hori martxan jartzeaz gain, Batzordeak datu-base batean sartu ditu prentsan, irratan eta telebistan emandako eta argitaraturiko albiste guztiak. Datu base hori BRS formatuan dago eta, bertan, 2000ko urtarrilaren 1etik, prentsa idatziko 4000 agiri bildu dira, baita irratan nahiz telebistan emandako informazioei dagozkien 25000 agiri ere.



## LIBURUTEGIA

Gizarte egoitza aldatzearen eraginez, Euskadiko EGABren liburutegian dauden agiriak berriro katalogatu eta kokatu dira, 2000. urteko azken hiruhilekoan.

2000. urtearen amaieran, Batzordeko Liburutegian 1.227 unitate fisiko zeuden, bertako datu-basean jasota. Zenbaketa horri, berriz, legegintzako eta jurisprudenziako buletinak gehitu behar zaizkio, baita erregistro automatizatuan sartzen ez diren liburuxkak eta aldizkariak ere.

Agiriak tratamendu eta pilaketa automatikoa dute, Liburutegiko Kudeaketarako datu-base berrian. Tresna horrekin, agiriak kontsultatzea eta berreskuratzea *in situ* egin daiteke, agiria eskuz lortuta, datu-basean egindako kontsulten bitartez; hori BRS, Search formatuan dago eta 4 erabiltzailek batera jarduteko aukera ematen du.



## ARGITALPENAK

2000. urtean ondoko ale hauek editatu eta banatu dira:

- Jardueren Memoria 1999. Edizio elebiduna, 750 ale.
- Web Orri berria aurkezteko buletin monografikoa. Edizio elebiduna, 1.000 ale.
- Euskadiko EGABren Legea eta Araudia. Berredizio elebiduna, 300 ale.
- Memoria Sozio-ekonomikoa 1999. Gaztelaniako edizioa, 1.500 ale. Euskarako edizioa, 300 ale.
- Egindako 7 irizpenen separata elebidunak. 500 ale. Guztira, 3.500 ale.



Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako  
Batzordeari ezarri dakioken Legedia

VI

## Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari ezarri dakioken Legedia

- Euskadiko Autonomia, Estatutuaren 3/1979 abenduak 18, LEGE ORGANIKOA. EAA, 306. zk. 1979ko abenduaren 22koa. EHAA, 32. zk., 1980ko urtarrilaren 12koa.
- 9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa. EHAA, 141. zk., 1997ko uztailaren 24koa.
- Osoko Bilkuraren ERABAKIA, 1997ko abenduaren 18koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetako Batzordearen funtzionamendu-araudia onartzeko dena. EHAA, 10. zk., 1998ko urtarrilaren 16koa.
